

Erreferentzia kodea: ES/NA/AACF/2/034

Izenburua: BARNE MERKATARITZAKO PROBINTZIA BURUZAGITZA

Datak: 1954-1986

Deskribapen maila: Funtsa

Bolumena eta euskarria: 172 instalazio unitate

Sortzailea: BARNE MERKATARITZAKO PROBINTZIA BURUZAGITZA

Erakundearen historia:

Gerra Zibila bukatu zenean, Tasen Fiskaltza Nagusia sortu zen 1940ko irailaren 30eko Legearen bidez, premia handiko produktuak merkaturatzean eta saltzean egiten ziren gehiegikeriak kontrolatzeko. Probintzia ordezkariak zituen. Haren fiskalizazio lana zuzenean lotuta zegoen Gobernadore Zibilarekin eta Hornidura eta Garraio Komisariarekin. Merkataritza Ministerioaren 1952ko maiatzaren 17ko Aginduaren bidez, Ministerioaren eta probintzia erakundeen eskualde ordezkariak berrantolatu ziren eta Donostiako eskualde ordezkariak sortu zen, Gipuzkoa eta Nafarroako probintzien gaineko jurisdikzioa zuena.

Handik gutxira, abenduaren 12ko 3598/1963 Dekretuaren bidez, Merkataritza Ministerioari eskualdatu zitzaizkion Tasen Fiskaltza Nagusiaren ikuskapen eta zehapen eskumenak, eta, horren barruan, Merkatuaren Diziplinaren Ikuskaritza Zerbitzua sortu zen, eskumen horiek bere gain hartuko zituen.

Barne Merkataritzako Zuzendaritza Nagusiaren —Merkataritza Ministerioari atxikia (1091/1971 Dekretua, maiatzaren 6koa)— egitura organikoa berrikustearekin batera, Barne Merkataritzaren eta Kontsumitzaileen Kontseilu Nazionala eta administrazio periferiko bat sortu ziren —bigarrenak probintzia ordezkariorde bat zuen buru—. Kontseilu horren menpe gelditu zen Merkatu Diziplinaren Ikerketa eta Zaintza Bulegoa.

Handik gutxira, ezabatu egin zen Merkatuaren Diziplina Ikuskaritza Zerbitzua (2563/1972 Dekretua, irailaren 15ekoa), eta haren eskumenak Barne Merkataritzako Probintzia Buruzagitzei esleitu zitzaizkion. Nafarroan, Buruzagitza hori 1973ko otsailaren 5eko Aginduaren bidez sortu zen. Besteak beste, eginkizun hauek zituen: merkatu diziplinaren arloko arau-hausteengatiko espedienteak hastea, zehapen espedienteetan instrukzioko epailea izendatzea, merkatuaren diziplina hausten ez zenean jarduketak artxibatzeako agintzea eta zehapen proposamenak egitea.

Ekainaren 19ko 1120/1985 Errege Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatu zitzaizkion kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsaren arloan Estatuko Administrazioak zituen eginkizunak eta zerbitzuak, bai eta Barne Merkataritzako Probintzia Buruzagitza ere.

Funtsaren antolamendua:

034.01 ADMINISTRAZIOA

034.01.01 Korrespondentzia

034.01.02 Kontabilitateko espedienteak

034.02 ZERBITZUAK

- 034.02.01 Ikuskaritzako aktak merkatuko diziplinaren arloan
- 034.02.02 Zehapen espedienteak
- 034.02.03 Ebatzitako salaketak
- 034.02.04 Eginbideen inhibizioak
- 034.02.05 Tasen Probintzia Fiskaltzak hasitako zehapen-espedienteen erregistroa

Sarrera baldintzak:

Sarbide mugatua. Ebaluazio Batzordeak dokumentazioa murrizteko epea ezartzen ez duen bitartean, dokumentuak eskuratzeko, Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen 20. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.